

## TRINTXERAK ETA GERRILLAK

Hautsez eta hazi berriz estali zait autoa iluntzea dekretuz atzeratuko duten aste-bezperan. Begitantzen zait ekinaren zirimolak garamatzala denok, polen-hauts, lore-pinporta, auto, auzokide eta ni neu, batetik bestera, zereginen katean estekatuta. Gauez batzuk, goizez besteak, denetariko lanordu eta txandetan antolatuta goaz, denetariko paga, pentsio eta soldatekin, edo batere gabe. Honetatik bizi al zara?, galdetu dit, irribarretsu, hogeita hamar urte leku berean beharrean daroan ikaskideak. Bai, erantzun diot. Ipuinetik bizi naiz, bere *izen-abizen* guztiekin, denetarik egiten dudalako, edo egin izan dudalako: asmatu, idatzi, kontatu, kantatu, argitaratu, zabaldu, dinamizatu, itzuli, sailkatu, baloratu, saldu, azaldu, erosi, erakutsi...

Literaturaren *izen-abizenok* izendatu ahala noa diseinatzen gaurko literatura-sistemaren mapa buruan, sare bat balitz modura, datorren astean eman behar dudan hitzaldiko materiala aurreratu guran: egilea, editorea, bitartekaria, kritikaria, banatzailea, itzultzailea, irudigilea, dinamizatzailea, sare sozialak, dendak, liburu-dendak, liburutegiak, aldizkariak, prentsa, irakurleak...

Sail bakoitza osatzen hasteaz batera, lagun bati bidali nion erantzunean iltzatu zait begirada. Literaturaren panoramaz ari ginen. Egungo pertzepzioaz. Azaltzen nion Gerrilla eta Trintxera aipatzean, Literaturaren iraunkortasunaz ari nintzela, ez heriotzaz. Esaten nion badoan mundu baten parte eta datorren beste baten testigu naizelarik, bor-bor sumatzen ditudala hitzak nire barruan, eta inguruan ikusten dudau gauza askok ez nauela asetzen. Bizitzeko ohiturak aldatu egin direla eranstean nion, estimulu bizkorrez inguratuta gaudela, baina, hala ere, niretzat, hitzak baduela, oraindik, liluratzeko ahalmena. Dena den, zehazten nion, literatura eta liburuak, berez, ezer gutxi direla: pertsonok garela bizia ematen diegunak. Beraz, idatziaz paperetik harago defendatzen ditudala nik, modu lagungarriak asmatuz. Modak, joerak eta merkatuak ez gaituela guztiok une guztietan asetzen. Honenbestez, literatura, bere neurri txikian, aukera bat izan daitekeela dezepzioa modu ederrez izendatu eta uneko aldartea mudatzeko, baina, "aukera" horrek eremu eroso eta orokorra uztea eskatzen duela, "zer nahi dut?" galdetzea, eta bila ekitea, bidea ikasbide bilakatuta.

Sareak zuloak dituela baieztatzen nion; sistemak huts egiten duela, zer esanik ez, baina nik neuk, sistema-sareko zati nano bezain baliagarri, nahiko argi dudala nola jokatu: bideari adi, joerei so eta hutsuneetatik gertu, kexen ajetik urrun, purrusten putzari gor.

Amaitzeko, komentatzen nion, pertsonen aldean, gauzak ez direla "berez" hiltzen; guk geuk erabakitzen dugula noiz hil diren. Beraz, literaturari bizia ematen diodan bitartean, niretzat bizirik dagoela; eta, hain zuzen ere, "bizia emate hori" deitzen dudala nik, arruntasunik babestea, hots, Trintxera; eta liburua hitz-bizi bilakatzea, alegia, Gerrilla.

Hau guztia gudarik gabeko borrokan, jakina.

Gaur irabazi egin duzue, baina baliteke behin edo behin galtzea ere. Halakoetan, gogoratu:

Etsitzeak ez du balio!

## **A mailako sariak. Epaimahaikideen iritziak**

### **NARRAZIOA**

1. saria: *Itsasoari begira*. Gaixotasun larri baten erretrato baikorra. Aitona-ilobak izan daitezkeen bi laguneren arteko konplizitatez ehunduriko narrazioa, hamahiru urteko narratzaile-protagonistaren ahotsean, umorea, kantua eta bizipoza bidaide direla.

2. saria: *Obsesioa*. Izenburuari jarraituz osaturiko testua, aita baten ikuspegitik kontatua eta erritmo biziz harildua. Detaileen deskripzio zehatzak tentsio-joko polita sortzen du, modu dosifikatuan. Gertaera mugatu baten kontraera zehatzak irakurlea protagonistaren aurreiritziarekin erraz identifikatzen laguntzen du.

3. saria: *Bizitzaren margoak*. Fikzio biografikoa egiteko ahalegin polita. Ondo idatzia.

### **OLERKIA**

1. saria: *Hareazko erlojua*. Asmakizun poetiko baten gisa, hareazko erlojuaren irudiaren gainean eraikitako poema, erritmo egokiz jorratua eta bukaera adierazgarri itxia.

2. sana: *Barkamenaren hazia*. Hizkuntza maila jasoaz, poesia narratiboaren ildotik eta ederki ondutako irudiez lagunduta, bi maitaleren arteko harremanaren giltza berria aurkezten zaigu, fin eta dotore: barkamenaren hazia.

3. saria: *Haizearen xuxurla*. Modu anaforikoan, soinu txistukariekin haizearen xuxurla irudikatuz eratutako joko poetiko lortua.